

Sagardogintzako oinarrizko hiztegia:

- **Sagar:** Sagarrondoaren fruitua, biribila, mami sendokoa eta urtsua; jateko edo sagardoa egiteko erabiltzen da.

- **Kizki:** 60 zentimetro inguruko makila, muturrean iltze oker bat duena. Sagastian sagarrak banan-banan lurretik zare edo otarrera biltzeko erabiltzen da.




- **Otarre:** Baserrietan hainbat gauza (sagarrak, artoa, belarra, baratzeko gauzak, egurra, etb...) biltzeko zumezko ontzia, kirtenik gabea.

- **Sagarra jotze:** Eskuz nahiz mekanikoki sagarra lehertzea.

- **Pisoi:** Sagarra jotzeko erabiltzen zen zurezko mailu handia. Kirten luzea zuen eta goitik behera joaz lehertzen zuen sagarra.

- **Patsa:** Sagarra jo ondoren geratzen de sagar txikitua.

- **Upel:** Sagardoa gordetzeko ontzi handia. Zutikakoa edo etzandakoa izan daiteke, eta hainbat materialetakoa: zurezkoa, altzairuzkoa, poliesterezkoa, eta abar.



- **Txotx:** Zurezko upeletan sagardoa ateratzeko zulotxo ixteko erabiltzen zen pieza. 4 edo 5 mm-ko diametroko egur biribil bat zen, 10 cm-ko luzerakoa.

- **Sagardotegi:** Sagarra sagardo bihurtzeko baliabideak dituen, sagardoa egiten, dastatzen eta saltzen den lekua.

- **Txinparta:** Sagardoan berez eta arinki agertzen den gas karbonikoa. Txotxetik nahiz botilatik sagardoa edalontzira botatzerakoan aparra agertzea eragiten du.

- **Urre-kolore:** Sagardoaren kolorea, urrearen antzeko horia.

- **Eraso:** Sagardoa edatean izaten den lehenengo sentsazioa.

- **Geroko:** Sagardoa edan eta irentsi ondoren ahoan geratzen den zaporea.

- **Gogor:** Edateko garaia joan zaion sagardoari esaten zaio.

- **Mama:** Kalitate handiko ardoa edo sagardoa.

- **Motel:** Ahula, indar eta bizitasunik gabea.



* Hitz hauek guztiak Sagardoaren Hiztegian bilduak daude.